ZESTOAKO KIROLDEGIAN KIROL ETA JARDUERA FISIKO ZERBITZUEN ESLEIPENA PROZESU IREKI BIDEZ ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KOTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea da Zestoako Udalaren kirol-instalazioetan jarduera fisiko eta kirol zerbitzuak eta zuzendutako jarduerak zein baldintzatan eskaini behar diren zehaztea eta gauzatzeko lanak kontratatzea.

Enpresa esleipendunak biztanleko sektore guztientzako (adinekoak, gazteak, helduak, haurrak, besteak beste) jarduerak eskainiko ditu, bakoitzaren beharrak eta premiak aintzat hartuta.

Honako ikastaro hauek sustatuko ditu, beste hainbaten artean:

- Senior Fit (hirugarren adinekoentzako jarduera fisikoa)
- Heldua Fit maila aurreratua
- Aizarna eta Arroa Aktiboa (hirugarren adinekoentzako jarduera fisikoa)
- Oreka, koordinazioa eta indarra
- Total training
- Gazteentzako ikastaroak
- Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol sailak proposatutako gainontzeko ikastaroak

Jarduera Fisiko eta Kirol sailak ikasturte bakoitzean unean uneko programazioa onartuko du, eta urtetik urtera aldakorra izan daiteke. Jarduera horiek eskainiko ditu enpresa esleipendunak.

Era berean, jarduera zehatz bat egiteko eskatutako gutxienekoak betetzen ez badira, ikastaroa bertan behera uzteko eskumena izango du Jarduera Fisiko eta Kirol sailak.

2. JARDUERAK EGITEKO LEKUAK ETA EGUTEGIA

Plegu honetan jasotzen diren jarduerak, aldaketarik egon ezean, Zestoako Udal Kiroldegian, Arroabea auzoan eta Aizarna auzoan egingo dira. Hala ere, Jarduera Fisiko eta Kirol sailak esleipendunari aldez aurretik jakinarazten badio, ikastaroak aipatutako instalazioetatik kanpo ere egin ahal izango dira.

2026-27 ikasturteko udal kiroldegiko ikastaroetako egutegia (I. eranskina) eta urteko orduen zenbatekoa erreferentziatzat har daitezke kontratu honen xede izango diren hurrengo urteetan. Ordutegiak eta saio-kopurua sailak ezarriko dituen jarduera fisikoen eta kirol jardueren eskaintzaren eta eskariaren araberakoa izango da.

Zestoako Udalaren eskumena izango da egutegi eta ordutegi hori egoera hauetan aldatzea:

- Interes orokorrekoa bada.
- Kirol programazioaren premiak aldatzen badira.
- Ospakizunen edo aparteko ekintzen bat antolatzen bada. Aldez aurretik horren berri eman beharko da.
- Zestoako Udalaren irizpideen arabera ziurtatutako eta justifikatutako beste edozein arrazoirengatik.

3. JARDUEREN ETA ZERBITZUAREN AZALPENA

Zerbitzuaren helburua da udalerriko biztanleei jarduera fisiko eta kirol jarduera gidatuak eskaintzea, hain zuzen, banakako eta taldekako ezaugarrietara egokituta eta erabiltzaileen beharrak errespetatuta.

BALDINTZA OROKORRAK

Zerbitzuaren esleipendunak baldintza orokor hauek bete beharko ditu:

- Zerbitzuak eskaintzea Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol arloaren ikuskapen teknikoaren eta ezarritako irizpideen arabera. Informazio gisa, 2026/2027 ikasturteko eskaintza jasotzen da eranskinetan (II. eranskina).
- Zerbitzuaren esleipendunak emango ditu jarduerak, eta Jarduera Fisiko eta Kirol sailak instalazioan bere esku jarriko dituen baliabide teknikoak eta materialak erabiliko ditu horretarako.
- Enpresa esleipendunak arduratuko da musika-ekipoaren, ikastaroetako ekipamenduaren eta material didaktikoaren erabilera egokiaz. Materiala behar bezala erabiltzen ez bada, esleipenduna egingo da horren kargu.
- Ikastaroak kalitatez emateko materiala Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol Sailak erosiko du. Horretarako proposamenak egingo ditu enpresa esleipendunak.
- Esleipenduna behartuta dago saioak ematera, baldin eta egutegian programatuta badaude eta gutxienez hiru erabiltzaile aurkezten badira ikastaroa hasten denetik hamar minutuko epean.
- Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko beharrezko giza baliabideak jarriko ditu, eta ziurtatuko da jarduera bakoitza emango duen irakasleak gutxieneko titulazioa, euskara maila ziurtatuta eta beharrezko kualifikazioa izateaz.
- Behin-behineko ezgaitasunaren, oporren, baimenen, absentismoaren edo bestelako gorabeheren ondorioz, kontratu honen xede diren zerbitzuak ez dira inolaz ere aldatuko, eta enpresa esleipendunak une oro bermatu beharko du zerbitzua ematen dela eta haren kalitatea.
- Enpresa esleipendunak zerbitzuak emateko beharrezko langile kopurua izan beharko du. Horretarako, esleipenduna behartuta egongo da monitoreak berehala ordezkatzeko sistema bat abiaraztera, ikastaroetako erabiltzaileak kontratatutako zerbitzua jaso gabe gera ez daitezen. Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena egin aurretik, Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol arloari helaraziko dizkio aldaketak eta dokumentazioa: langileen izen-abizenen zerrenda, horien lan kontratuak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiriak. Enpresa esleipendunak monitore berriak kontratatzen baditu, langileak gutxieneko baldintzak bete beharko ditu.
- Langile oro behar bezala kontratatuta egon beharko da.
- Langileak lanak aurrera eramateko beharrezkoak diren babes elementu guztiak izan beharko ditu, hain zuzen, indarrean dagoen prebentzio araudiaren arabera. Horren ardura esleipendunarena izango da.
- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betetzeko, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan, Zestoako Udalak 7. eta 8. artikuluetan xedatutako informazioa eta jarraibideak eman beharko ditu, eta 171/2004 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoa betez, Soraluzeko Udalak kontratatutako jarduerei edo zerbitzuei buruzko dagokion dokumentazioa emango zaio esleipendunari, eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan eta enpresa-jardueren koordinazioaren arloan

aplikatzekoak diren arauak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa eskatuko zaio. Esleipendunak entregatu egingo du.

- Zerbitzua ematean langile orori gerta lekizkieken ezbeharren erantzukizuna esleipendunarena izango da.
- Kirol monitoreek saioak emateko eta instalakuntzak libreki erabiltzeko beharrezko diziplina eta gaitasuna izan beharko dute, instalazioetako araua betez eta betearaziz.
- Enpresa esleipenduneko langileen ardura izango da arauak eta planak ezagutzea, betetzea eta erabiltzaileei jakinaraztea, irakastea eta betearaztea.
    - Kiroldegiko araudia (auto-babeserako planak, eta abar.).
    - Kirol-instalazioetan lan egiteko oinarrizko jarraibideak eta nahitaez bete eta aplikatu beharreko prozedura garrantzitsuenak.
- Urtero eta jarduerak hasi baino lehen, programatzen diren ikastaroak emateko metodologia eta programazioa aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol Sailean. Kontratuaren indarraldiko urte bakoitzean denboraldi bakoitzerako programazio osoaren proposamena egingo da, eta irailetik ekainera bitarteko egutegi bat prestatuko da. Egutegi hori enpresak eta Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuak batera egingo dute.
- Udalak programatutako jarduera fisikoa sustatzeko euskarri informatikoak jarriko ditu, eta enpresa esleipendunak publizitate edo sustapeneko elementurik jarriz gero, estereotipatu gabeko irudiak erabili beharko ditu. Gorputz-ereduen aniztasuna zaindu beharko du komunikazio euskarrietan, baita kulturartekotasuna eta adinartekotasuna ere. Zestoako Udaleko logoa jarri beharko du argitalpen guztietan.
- Ikasturteko eskaintza amaitutakoan ikasturteko memoria aurkeztu beharko du Jarduera Fisiko eta Kirol Sailean, datuak kualitatiboki eta kuantitatiboki azalduta eta banatuta. Memorian azaltzen diren datuak genero eta adinaren arabera sailkatu beharko dira. Memorian honako hauek azaldu beharko dira gutxienez: ikasturteko ikastaro bakoitzaren bilakaera, altak eta bajak, ekitaldi berezien azalpena, intzidentziak, istripuak, langileen datuak, langileen eskuhartzeak, erabiltzaileen asebetetzea, beharrak eta iradokizunak, etorkizunera begira zerbitzua hobetzeko proposamenak, euskararen erabilera eta hedapenaren neurketa, berdintasunaren inguruko datuak, eta esleipendunak edo Zestoako Udalak egoki ikusten duen bestelako edozein informazio.
- Enpresa esleipendunak Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailari beharrezko ikusten dituen hobekuntzak eta proposamenak egingo dizkio, nolanahi ere, zerbitzuaren kalitatea hobetzea bada helburu nagusia.
- Zerbitzua ikastaroen tasa eta prezio publikoak ordaindu dituzten erabiltzaileek soilik jaso ahalko dute, eta ziurtatzeko, ikastaro horietako asistentzia kontrolatu beharko du langileak.
- Udalak, uneoro, ikuskapen teknikoak egin ahalko ditu, enpresa esleipenduna saioak pleguan eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoaren arabera bideratzen ari dela egiaztatzeko.
- Ikaslearen banakako jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du esleipendunak: saioetan parte hartzaileen zerrenda pasako da, zerrendetan ageri diren ikasleen asistentzia kontratuko da, eta bajen berri emango dio Jarduera Fisiko eta Kirol Sailari.
- Enpresa esleipendunak ordezkari bat izendatuko du Udalarekin harremana izateko. Pertsona horrek, gutxienez, astean ordu bat izango du zeregin horretarako.
- Enpresa esleipendunak ordaindu beharko ditu lizentzia bereziak behar dituzten jarduerengatik beharrezkoak diren baimenak eta bestelakoak.

- Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko Segurtasun eta Osasun Plana izan beharko du. Plana teknikari eskudun batek onetsi beharko du, eta Jarduera Fisiko eta Kirol Sailean aurkeztu beharko du.
- Instalazioan itxi eta irekiko ditu, zerbitzua eskaintzeko ordutegiek horrela eskatzen dutenean.

BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legearen 23. Artikuluak xedatzen du emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortze aldera, botere publikoek sustatuko dutela emakumeek jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera. Baloratu egingo dira emakumeen jarduera fisikoa, ongizatea eta ahalduntzea bultzatzeko egiten diren proposamenak.

- Zestoako Udaleko berdintasun eta euskara irizpideak ezagutu eta bete beharko dituzte esleipenduneko langileek.
- Enpresa esleipendunak argitaratuko dituen dokumentu orok ez du irudi sexistarik izango. Pertsonen irudirik erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan erabili beharko du.
- Ahozko informazioak ez du kutsu sexistarik izango.
- Enpresak jasotzen dituen datuak generoaren arabera banatuko dira.

EUSKARA IRIZPIDEAK

Herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egitean euskara erabil dezaten sustatzea agintzen die administrazio publikoei 2/2023 martxoaren 30eko Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 25. Artikuluak. Esleipendunak zerbitzuak euskaraz emango ditu, eta saioetan euskararen erabilera sustatzen saiatuko da.

- Enpresa esleipendunak eta Zestoako Udalaren arteko harremana, izan ahozkoa edo idatzizkoa, udalaren lan-hizkuntzaren araberakoa izango da: euskaraz.
- Hizkuntzaren erabilera hobetzeko eta sustatzeko Udalak antolatuko dituen ikastaro eta saioetara joan beharko dute esleipenduneko langileek.
- Dokumentu idatziak euskaraz egingo dira.
- Ahozko komunikazioa euskaraz egingo da.
- Zestoako Udaleko berdintasun eta euskara irizpideak ezagutu eta bete beharko dituzte esleipenduneko langileek.
- Ikastaroetako saio presentziak euskaraz egingo dira.

INSTALAZIOETAKO LANGILEEK BI HIZKUNTZA OFIZIALAK DAKITELA EGIAZTATZEA

Instalazioetan kontratatutako langileek EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) hitz egiteko gaitasuna izan beharko dute. Kontuan hartuta kontratuaren xedeak herritarrekiko harreman zuzena eskatzen duela, honako euskara-maila hauek eskatuko dira:

- Kirol-koordinatzaileak: erreferentziazko Europako Esparruko (EGA edo baliokidea) C1 gaitasun-maila.

- Zuzendutako jardueren begiraleak: B2 maila, edo baliokidea. Halakorik ezean, Zestoako Udaleko euskara-zerbitzuek balorazio-proba bat egingo diote.

Euskararen ezagutza egiaztatu duen langile bat ordezten bada, ordezkoak puntu hauetan adierazitako eskakizunak bete beharko ditu. Gauza bera egingo da jarduera honetan parte hartzen duten langile berri guztientzat.

IKASTAROETAKO ETA SAIOETAKO BEGIRALEEN ZERBITZUA:

Langileak kualifikatuak izango dira, eta ikastaroak emateko eta esleipen aldian egon daitezkeen bestelako jarduerak antolatzeko eta garatzeko plegu hauetan jasotako gutxieneko titulazioa izango dute.

Enpresa esleipendunak, besteak beste, honako ardura hauek izango ditu:

- Ikastaroaren berezko eduki pedagogikoak planifikatzea eta garatzera.
- Ikastaroetako eta kiroldegiko materiala zaintzea.
- Begiraleekin, koordinatzailearekin eta Jarduera Fisiko eta Kirol sailarekin koordinatzea.
- Langileen ikastaroak eguneratzea eta birziklatzea.
- Hizkuntzari dagokionean Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea.
- Erabiltzaileei eta, adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariei, jardueren garapenari buruzko beharrezko informazioa ematea.

Enpresak Zestoako Udaleko kirol-eskaintza eskainiko ditu. Inoiz ez da Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren esku geratuko kirol-eskaintzaren zuzendaritza, antolakuntza eta esku-hartzea. Bertako langileak zerbitzuak eskaintzeko gai ez badira, kontratatutako enpresak behar bezala prestatutako ordezkoak bilatuko ditu ahalik eta denbora laburrenean.

Enpresa esleipendunak ikastaroetara edo saioetara bertaratutako pertsonak kontrolatuko ditu, asistentzia jaso beharko du, eta urte amaieran aurkeztu beharko du Jarduera Fisiko eta Kirol sailean. Ikastaroak egiteko gutxieneko (7) eta gehieneko (18) pertsona kopurua Jarduera Fisiko eta Kirol sailak erabakiko du. Saioren batean gutxieneko pertsona kopurura iristen ez den taldearen saioa bertan behera uzteko eskumena izango du Zestoako Udalak. Era berean, Udalak taldeen gutxiengoak eta gehiengoak aldatu ahal izango ditu, jardueraren bat sustatzeko interesaren, errentagarritasun ekonomikoaren, instalakuntzaren erabilgarritasunaren eta abarren arabera.

KIROL ETA JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

- Jarduerak aurrera eramango diren instalazioetara garaiz bertaratzea, bai saioen hasieran baita amaieran ere. Zerbitzuaren puntualtasuna bermatu beharko da.
- Jarduerak egiteko unean beharrezko arropa izatea.
- Saioetan euskarazko eta berdintasuneko irizpideak betetzea.
- Saioak aurrera eramateko erabiliko diren materialak (musika, bideoak, eta abar) berdintasun eta euskara irizpideen arabera erabiltzea.
- Jarduerak kontratuaren programazioan eta udalaren jarraibideetan ezarritakoaren arabera garatzea, aurreikusitako saioak eta ordutegiak betetzea, eta saioak erabiltzaileen banakako nahiz taldeko beharretara egokitzea. Trebetasunen garapena eta gizarte- eta hezkuntza-helburuak lehenetsi beharko dira.

- Erabiltzaileen kontrola eta segurtasuna bermatzea, arrisku-faktoreak behar bezala kontrolatzea, baita jardueren garapenaren, helburuen lorpenaren eta erabilitako baliabideen eta bitartekoen egokitasunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.
- Ikastaroetako partaideen jarraipena egitea (asistentziaren kontrola eta txostenak egitea).
- Erabiltzaileak jardueretan parte hartzera motibatzea eta haien inplikazioa sustatzea, baita jarduera fisikoarekiko atxikimendua eta bizi-ohitura osasungarriak bultzatzea ere.
- Lesioen prebentzioa eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, saioen karga egokitzea eta dagozkion beroketa-, luzaketa- eta gainerako prebentzio-jarduketak egitea.
- Erabiltzaileei kirol-jardueren garapenaren berri ematea.
- Erabiltzaileen eguneroko asistentziaren kontrola egitea.
- Kirol-instalazioen eta bertako ekipamenduen egoera gainbegiratzea, eta bere eskumenen barruan antzemandako gabeziak edo gorabeherak konpontzen saiatzea, jardueraren garapen egokia bermatzeko.
- Kirol-materialean edo instalazioetan antzemandako matxurak, kalteak edo gorabeherak berehala jakinaraztea Udalaren edo instalazioaren arduradunei, beharrezko neurriak har daitezen.
- Bere ardurapean dauden materialak, tresnak eta ekipamenduak behar bezala antolatzea, zaintzea eta hurrengo saiorako prest uztea. Materialaren inbentarioa egitea eta horien egoeraren berri ematea Jarduera Fisiko eta Kirol sailean. Bereziki, erabiltzaileentzat arriskutsu daudenean.
- Jardueretarako beharrezkoa den material didaktikoa, instrumentala eta osagarria prestatzea, banatzea, jasotzea eta behar bezala biltegiratzea.
- Memoriak eta bestelako txostenak modu digitalean jaso beharko dira eta digitalki bidali beharko dira Jarduera Fisiko eta Kirol sailera.
- Erabiltzaileek egindako iradokizunak, kexak edo proposamenak jasotzea eta arduradunari helaraztea, ezarritako komunikazio-prozeduraren arabera.
- Begiraleak ziurtatu egin beharko du, saioa amaitzen denean, haur, nerabe edo adingabe bakoitza heldu baten ardurapean geratzen dela, eta hori hala ziurtatu arte ez duela bakarrik utziko. Horretarako, beharrezko zaintza-lan guztiak egingo ditu.
- Jardueretako material didaktikoa, instrumentala eta osagarria behar bezala prestatzea, banatzea, biltzea eta gordetzea.
- Soinu-ekipoen zarata-maila kontrolatzea.
- Erabiltzaileei instalazioetan bizikidetza- zein higiene-arauak betearaztea.
- Urteroko formazio teknikoaren planean proposatutako trebakuntza saioetan parte hartzea.
- Ikastaroetako erabiltzaileei asebetetze-inkestak egitea (urtean behin, gutxienez), baita bertako erantzunak txostenean jasotzea ere. Txostena Jarduera Fisiko eta Kirol sailean aurkeztu beharko da. Erantzunak generoaren arabera banatu beharko dira eta digitalki bidali beharko da txostena.
- Indarrean dagoen osasun araudia eta erabilera araudia ezagutzea, eta protokoloak aplikatzea. Horrez gain, kiroldegian indarrean dagoen araudia eta autobabes-plana ezagutzea.
- Jarduerak aurrera eramaterako garaian energia kontsumoa zaintzea, beharrezkoa balitz argiak, berogailua eta abarrak itzaltzea.

- Jarduera Fisiko eta Kirol sailak prestatutako programetan agertzen diren egiteko administratibo guztiak eta aipatutako zerbitzuaren zuzendaritzak berariaz agintzen dizkionak egitea, baita lanpostuari dagozkionak ere.
- Oro har, zerbitzuaren baitan agindutako funtzioak eta beharrak betetzea.
- Zerbitzuarekin zerikusia duten eta Jarduera Fisiko eta Kirol sailak agintzen dizkion eginkizunak betetzea.

LANPOSTUAREN PROFILA

Kirol-monitoreek, gutxienez, honako titulazio hau izan beharko dute:

- Ofizialki aitortutako kirol titulazioa, garatutako kirol-zerbitzuak emateko gutxieneko titulazioa. 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazioak.
- Euskara mailari dagokionez, B2 euskara gaitasun maila egiaztatuta.
- Adin txikikoekin lan eginez gero: Delitu Sexualen Salbuespeneko Ziurtagiria eta eta Haur eta Nerabeen Babeserako Sentsibilizazio Ikastaroaren Ziurtagiria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan izena emanda egotea.
- Jarduera fisiko eta kirol jardueretan esperientzia izatea positiboki baloratuko da.

ZERBITZUAREN GARAPENA

Enpresa esleipendunak bete beharko ditu legezko betebeharrak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak, eta ordaindu egin beharko die langileei, gutxienez, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren araberako soldata. 2023-2027 urteetarako Gipuzkoako titulartasun Publikoko Kirol Instalazioen hitzarmen kolektiboa bete beharko da. Hurrengo urtetarako, kasuan onartutako hitzarmenarekin bete beharko da.

Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailak zerbitzua emateko titulartasunari eta erantzukizunari buruzko egiazko informazioa izan dezan, kontratua hasi baino astebete lehenago zerbitzua beteko duten langileen zerrenda nominala bidali beharko du erakunde esleipendunak, langileen kontratuen kopiarekin batera, kontratua formalki bete ondoren.

Era berean, zerbitzua ematen den bitartean altak eta bajak egonez gero, langile berrien dokumentuak eguneratuta bidali beharko dira.

Dokumentuak honako informazioa jaso beharko du:

- Lanpostuaren izena eta eginkizunak.
- Asteko lanaldia.
- Lanpostua betetzen duen pertsonaren izena.
- Euskara gaitasuna.
- Bere gaitasuna ziurtatzen duen titulazioa.
- Aplikatutako lan-hitzarmena.
- Adin txikikoekin lan eginez gero: Delitu Sexualen Salbuespeneko Ziurtagiria eta eta Haur eta Nerabeen Babeserako Sentsibilizazio Ikastaroaren Ziurtagiria.

ORDEZKAPENAK

Zerbitzua behar bezala emateko pertsonal nahikoa izan beharko du enpresa esleipendunak. Ikastaroetako erabiltzaileak zerbitzurik gabe gera ez daitezen, begiraleak edo monitoreak berehala ordezkatzeko sistema jarri beharko du martxan.

Irakasleak gaixotasunagatik edo beste ezbeharren batengatik saioa ezin badu aurrera eraman, Jarduera Fisiko eta Kirol sailean jakinarazi beharko du erreferentziazko kontaktuak. Salbuespenezko kasuetan, ikasleei jakinaraztea beharrezkoa balitz, kiroldegiko harrerako langileei jakinaraziko dio ordezkariak. Saio horiek errekuperatu egin beharko dira.

Gaixotasun edo beste egoera batengatik irakaslea bajan egonez gero, enpresa esleipendunak lehenengo egunetik izendatu beharko du haren ordezkoa. Ordezkapena egingo dun irakasleak saioak emateko gutxieneko baldintzak bete beharko ditu. Aurrekoak betetzen dituen betebehar berberak izango ditu. Esleipendunak, langilea lanean hasi baino lehen, sailari jakinarazi eta aurkeztu beharko dio baldintzak betetzen dituela. Enpresa esleipenduna egingo da kargu bajak eta horrek dakartzan gastuez. Erabiltzaileak monitoreren baten lanarekin ez badaude gustura, Zestoako udalak eskumena izango du profesional horren ordez beste bat jartzeko eskatzeko.

Klaseen kalitatea bermatzeko, Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailak talde bakoitzeko gehieneko eta gutxieneko izen-emate kopurua bermatu du, eta gutxieneko zenbatekora (7 pertsona) iristen ez den taldearen zerbitzua baliogabetzeko eskubidea izango du. Hala ere, taldeen gutxiengoak eta gehiengoak aldatzeko aukera du sailak, betiere, baldintza batzuk betez gero: jarduera bat sustatzeko interes-irizpideak, talde bakoitzaren errentagarritasun ekonomikoa, instalazioen erabilgarritasuna, eta abar.

GIZA TALDEA

Enpresa esleipendunak langileak jarriko ditu dokumentu honen xede den zerbitzua betetzeko.

Subrogazio kasuetan indarrean dagoen hitzarmena aplikatuko da. Horrez gain, langileek ikastaroak aurrera eramateko beharrezko baldintzak, 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa bete beharko dute, baita 2/2023 LEFEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena ere.

Langile hasi berriak eta langile subrogatuak ordezten dituztenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ofizialki aitortutako kirol titulazioa, garatutako kirol-zerbitzuak emateko gutxieneko titulazioa. 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazioak.
- Euskara mailari dagokionez, B2 euskara gaitasun maila egiaztatuta.
- Adin txikikoekin lan eginez gero: Delitu Sexualen Salbuespeneko Ziurtagiria eta eta Haur eta Nerabeen Babeserako Sentsibilizazio Ikastaroaren Ziurtagiria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan izena emanda egotea.
- Jarduera fisiko eta kirol jardueretan esperientzia izatea positiboki baloratuko da.

PROGRAMAZIOA ETA DINAMIZAZIOA

Bazkideak, bazkide ez direnak eta ikastaroetako erabiltzaileak erakartzeko enpresa esleipendunak komunikazio estrategiak proposatu beharko ditu.

Ikasturteko programazioak baldintzak hauek bete beharko ditu:

- Biztanleria osoarentzat izatea, adina, kultura, jatorria, aniztasun funtzionala eta gaitasun ekonomikoa aintzat hartu gabe.
- Zestoako kiroldegiko espazioak, ordutegia eta egutegia kontutan izanda kronograma bat betetzea.
- Metodologia, edukia eta sekuentziazioa definituta eta jasota izatea.
- Zerbitzuen eta eskaintzaren kalitatea hobetzeko ebaluazio eta kontrol neurriak hartzea.

Enpresa esleipendunak gutxienez ikasturte amaieran galdetegi bat pasa beharko die ikastaro bakoitzeko erabiltzaileei. Galdetegian, gutxienez, hau jasoko da:

- Antolatutako kirol-jardueren edukiaren eta horren kalitatearen gogobetetasuna.

- Enpresa esleipenduneko langileen lanaren kalitatea.

- Jardueretan hobetu beharreko alderdiak (galdera irekia izan daiteke).

Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailak, galdetegia abian jarri aurretik, inkesta-ereduaren edukia eta egitura gainbegiratu ahal izango ditu, eta ahalmena izango du entitate esleipendunari klausula honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen doikuntzak proposatzeko. Enpresa esleipendunak jarraibide horiek bete beharko ditu. Ikastaro bakoitza amaitzean, Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailari jakinaraziko zaizkio gogobetetze-inkesta horren emaitzak. Enpresa esleipendunak, Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailarekin lankidetzan jardun beharko du, eta datuak biltzeaz arduratuko da.

EPEA

Kontratuaren iraupen epea 2+1+1 urtekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera.

KIROL JARDUEREN ZERBITZUAN AURREIKUSITAKO ORDU KOPURUA

Kontratuaren xede diren kirol jardueren zerbitzuak emateko, Zestoako Kiroldegian 2027. urtean aurreikusten den ordu-kopurua honako hau da: 725 ordu.

Kontratuaren lau urteko iraupena kontuan hartuta, zerbitzuaren gutxi gorabeherako aurreikuspena **2.900 ordukoa** da.

Adierazitako ordu-kopuruak orientagarriak eta ez-lotesleak dira, eta 2027. urteko kirol-eskaintzaren arabera egin dira. Benetan eman beharreko ordu-kopurua ikasturte bakoitzean sortzen diren beharrei eta zerbitzuaren eskaerari egokituko zaie, bereziki erabiltzaileen izen-emateen eta jardueren eskariaren arabera. Zestoako Udalak orduen eta beharren arabera ikastaro gehiago edo gutxiago eskaintzeko eskumena izango du.

Horrenbestez, aurreikusitako ordu-kopurua ez da kontratuaren exekuzioan ezarri beharreko ordu-kopuru finko edo gehienezko gisa ulertuko. Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean, aurreikusitakoa baino ordu gehiago edo gutxiago eman ahal izango dira, kontratuaren gainerako baldintzak eta aplikatzekoa den araudia errespetatuz.

TALDE TEKNIKO KUDEATZAILEA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUA

Enpresa esleipendunak arduradun bat edo talde tekniko kudeatzaile bat izendatuko du ikastaroetako eginkizunak koordinatzeko eta Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol saileko

arduradunarekin komunikatzeko. Koordinatzaile hori izango da Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailari zerbitzuaren berri emateko bide nagusia eta ofiziala. Hain zuzen ere, langileek koordinatzailearekin landu beharko dituzte euren eskaera eta beharrak. Helburua Zestoako herritarrei Jarduera Fisiko eta Kirol sailetik eskaintzen zaizkien zerbitzuen bikaintasuna eta kalitatea bermatzea izango da.

Koordinatzaileen figura funtsezkoa da Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren eta enpresa esleipendunaren arteko hartu-emanerako. Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren aginduen hartzailea eta exekutatzailea izango da, eta sailak adierazten dituen beharren araberako presentzia izango du. Komunikaziorako telefono mugikorra eta posta elektronikoa izango ditu.

Koordinatzaileak eta Jarduera Fisiko eta Kirol saileko arduradunak, erabakitako maiztasunarekin, jarraipen bilerak egingo dituzte. Gutxienez, hiru hilean behin bilduko dira. Bilera horietara eskatutako informazioa eta dokumentazioa ekarri beharko du koordinatzaileak (ikastaroen gorabeherak, intzidentziak, berrikuntzak eta proposamenak, eta abar).

Honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Koordinazio teknikoko funtzioak beteko ditu jarduerak behar bezala gara daitezen (programazioak, ordezkapenak, gorabeherak, proposamenak, eta abar), dagokien araudi teknikoen arabera.
- Sailari behar denetan zerbitzuaren inguruko aholkua eta laguntza emango dio: txostenak egin beharko ditu, bileretan parte hartu, eta abar.
- Behar diren zerbitzuak emango ditu kontratuaren xede diren jarduerek sor ditzaketen gorabeherak konpontzeko.
- Langile guztiak koordinatu eta kontrolatuko ditu, eta planifikatutako jardueren jarraipena egingo du.
- Zerbitzuaren garapena eta funtzionamendu orokorra gainbegiratu eta kontrolatuko ditu (programazioak, ordezkapenak, gorabeherak, proposamenak, etab.), aplikatu beharreko araudi teknikoaren eta jardunbide egokiaren arabera.
- Ahalik eta azkarren, Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailari idatziz jakinaraziko dio zerbitzuarekin zerikusia duen edozein gorabehera. Sailak emandako informazioa edo jarraibideak ere lehenbailehen jakinaraziko dizkie zerbitzuko langileei.
- Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol saileko buruak emandako jarraibideak ahalik eta lasterren helaraziko dizkie kontratatutako langileei.
- Egindako lanez, eskatutako kalitateaz eta aurreikusitako segurtasun- eta errendimendu-arauak betetzeaz arduratuko da.
- Irakasleen irakaskuntza irizpideak zehaztuko eta bateratuko ditu, eta laguntzaile guztiei behar dutenetan lagunduko die.
- Jarduera Fisiko eta Kirol sailak zehaztutakoan, edozein motatako dokumentazioa aurkeztuko du: jarduera bakoitzaren programazioa, asistentziak, gorabeheren jakinarazpenak, eta abar.
- Zerbitzuaren garapen operatiboaren berri emango dio Jarduera Fisiko eta Kirol Sailari, idatziz.
- Beharrezkoa denean erabiltzaileek egiten dituzten erreklamazio, iradokizun eta proposamenei buruzko aholkuak eta erantzunak emango ditu.
- Udalak egokitzat jotzen dituen posta elektronikoko kontuak kudeatuko ditu.
- Zerbitzua hobetzeko proposamenak egingo ditu.
- Zerbitzuarekin zerikusia duen eta ezaugarri bertsuak dituen beste edozein eginkizun, Jarduera Fisiko eta Kirol sailak egoki ikusten badu.

Talde edo pertsona kudeatzailearen urteko dedikazio presentziala gutxienez 50 ordukoa izango da, eta barne-koordinaziorako beharrezko orduak egingo ditu.

Koordinatzailearen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko komunikazioak euskara hutsean egingo dira. Honako baldintza hauek bete beharko ditu koordinatzaile arituko den langileak:

- Ofizialki aitortutako kirol titulazioa, garatutako kirol-zerbitzuak emateko gutxieneko titulazioa. 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoan egokitzen zaizkien titulazioak.
- Euskara mailari dagokionez, C1 euskara gaitasun maila egiaztatuta.
- Adin txikikoekin lan eginez gero: Delitu Sexualen Salbuespeneko Ziurtagiria eta eta Haur eta Nerabeen Babeserako Sentsibilizazio Ikastaroaren Ziurtagiria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan izena emanda egotea.
- Jarduera fisiko eta kirol jardueretan esperientzia izatea positiboki baloratuko da.

Koordinatzaileak lanerako behar dituen baliabide informatikoak eta gainerakoak enpresaren kargura izango dira.

FORMAZIO TEKNIKORAKO PLANA

– Adingabeekin ohiko harremana duten lanbideetan sartzeko eta jarduteko baldintza izango da, bai dedikazio profesionalean bai boluntariotza-araubidean, lanbideok adingabeekiko ohiko harremana izatea dakartenean, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik epai irmoz kondenatua ez izana, bai eta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako gizakien salerosketaren edozein deliturengatik ere. Horretarako, lanbide horietan sartu nahi duenak egoera hori egiaztatu beharko du Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuta, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

– Debekatuta dago enpresek eta erakundeek lana ematea, lege honetan araututako eta adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten jardueretan, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusian aurrekariak dituztenei. Debeku hori boluntarioei ere aplikatzen zaie.

MATERIALA ETA KOMUNIKAZIOA

Materialak eta kontsumigarriak berritzearen ardura (ordezkatzea, betetzea, aldatzea, eta abar) enpresa esleipendunaren ardura izango da, zehazki, honako material hau: bulegoko materiala, komunikazio-materiala (Jarduera Fisiko eta Kirol sailak diseinuari, formatuari, tamainari, unitate kopuruari eta hizkuntzari buruz emandako jarraibideak bete beharko dira) edota kontsumigarria izan daitekeen edozein material suntsikor, nahiz eta berariaz zerrendatuta ez egon.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA ETA AURREIKUSTEN DIREN ORDU KOPURUAK

1. ZESTOAKO UDAL KIROLDEGIKO EGUTEGI ETA ORDUTEGIA:

2027.urteari dagokionez, kiroldegiak izango duen funtzionamendu-egutegia eta ordutegia honako hau izango dela aurreikusten da (I. ERANSKINA).

Kiroldegiaren ohiko funtzionamendu-egutegia astelehenetik larunbatera bitartekoa izango da, eta igandeetan itxita egongo da.

Gorriz adierazitako egunetan, berriz, kiroldegia itxita egongo da. 2027. urteari dagokionez, itxiera egun horiek honako hauek izango dira (aldaketak egon daitezke):

- Urtarrilak 1 eta 6
- Martxoak 25, 26, 27 eta 29
- Maiatzak 1
- Maiatzak 3
- Uztailak 31
- Abuztuak 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 28
- Irailak 8
- Urriak 7 eta 12
- Azaroak 1
- Abenduak 6, 8 eta 25

Abuztuan aurreikusitako bi asteko itxialdia kiroldegiko instalazioetan beharrezkoak diren mantentze eta hobekuntza lanak egiteko egingo da.



2. 2026/2027 KIROL-ESKAINTZA:

Kiroldegian eskaintzen diren kirol-jarduera gidatuei dagokienez, 2026-2027 ikasturtean indarrean dauden eskaintzaren egutegia eta prezioak jasotzen dira, gaur egungo zerbitzuaren antolaketa eta eskaintza erreferentzia gisa hartuta. (II.ERANSKINA)

Jarduera horien eskaintza, bai jarduerei dagokienez, bai egutegiari eta prezioei dagokienez, ikasturte berri bakoitzaren hasieran berrikusi eta eguneratuko da, zerbitzuaren beharretara eta Udalaren zehaztapenetara egokituz.

Era berean, 2026-2027 ikasturteari dagokion ikastaroen egutegia ere jasotzen da, gaur egun eskaintzen diren jardueren antolaketa eta banaketa zehazteko.(III.ERANSKINA)

KIROL JARDUERA GIDATUEN ESKAINTZA:

II. ERANSKINA

KIROL JARDUERA GIDATUAK					Prezioak	
Kirola	**Adina**	**Egunak**	**Orduak**	**Saioen Iraupena**	**Bazkideak**	**Ez bazkideak**
Senior Fit	65+*	Astelehena Asteazkena	9:30-10:30	50'	82,85€	124,27€
		Asteartea Osteguna				
Heldua Fit	16+	Astelehena Asteazkena	10:35-11:35		237,24€	351,20€
Yoga		Astelehena Asteazkena	17:00-18:00		237,24€	351,20€
Total training		Astelehena Asteazkena	15:15-16:15		237,24€	351,20€
			18:15-19:15			
			19:30-20:30			
		Asteartea Osteguna	18:15-19:15			
OKI – Oreka, koordinazioa eta indarra		Asteartea Osteguna	17:00-18:00		237,24€	351,20€
			19:30-20:30			
Aizarna Aktiboa	65+*	Astelehena Asteazkena	11:50-12:50		82,85€	124,27€
Arroa Aktiboa		Asteartea Osteguna	10:45-11:45		82,85€	124,27€

2026/2027 KIROL-ESKAINTZAREN EGUTEGIA:

III.ERANSKINA

